

Askotan esaten da sare-sozialak birtualak direla, zure esperientzia nola kalifikatuko zenuke?

Ikaslea 1:

-“Nire ustez, aurrez aurreko ikastaroa ez bada ere, harremanak ez dira birtualak, erreal-errealak baino. Eta behin ondo aztertuta, normala delakoan nago, azken batean, denbora errealean jazotzen diren erlazioak dira, eta horregatik jendea modu naturalean ezagutzeko aukera duzu.”

Ikaslea 2:

-“Nire esperientzia oso ona izan da, are gehiago , oraingoan esango nuke nahiago dulala kurtso telematikoa egin , presentziala baino . Niri , behintzat , askoz gehiago kostatzen zait parte hartzea kurtso presentzial batean , lotsatia naiz eta . “

Ikaslea 3

-“Egia da. Beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko eta ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Hori da, hain zuzen ere, sare-sozialen helburua.

Nire esperientzia bikaina izan da, aurretik ikaskideren bat ezagutzen nuelako baina beste batzuk ez. Pertsona berriak ezagutzea beti esperientzia polita da, beste ikuspegi batzuk entzun eta ezagutzen ditugulako.”

Ikaslea 4:

-“Esperientzia bat izan da niretzat. Online ikastaro bat egin nuen unibertsitatean, baina ez du zerikusirik. Hau oso dinamikoa izan da, barre asko egin dugu eta momento asko partekatu ditugu ikastea helburua zela ahaztu gabe.”

Ikaslea 5:

-“Hasiera hotza izan zen, baina egunak pasa ahala ikaskideen artean nahiz irakaslearekin erlazio estua lortu dugu.”

-“Ez dut ulertu oso ondo zer esan nahi duen galdera horrek. Baina nik esango nuke harremanak oso onak sortzen direla eta jendea jatorra dela. Gainera ia barnetegian egongo bagina bezala, idazlanak, entzumenak, ahozkoak egiten dira, orduan, heziketa nahiko erreala izan da. “